OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**2012ko IRAILAREN 20an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO CELEBRADO EL 20 DE SEPTIEMBRE DE 2012.**

**Olaberrian, 2012ko irailaren 20an, 18:45ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea, Jokin Garmendia Asurabarrena , Jose Manuel Garrido Fernandez, Amaia Cuellar González, Jose Antonio Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti eta Gema Echaniz Badiola eta Iñigo Sarasola Aranzasti zinegotziak.**

**En Olaberria, a 20 de septiembre de 2012, siendo las 18:45 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde Jokin Garmendia Asurabarrena, los concejales Jose Manuel Garrido Fernandez, Amaia Cuellar González, Joseba Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti, Gema Etxaniz Badiola e Iñigo Sarasola Aranzasti.**

**Bertan dago eta fede ematen du Jesus M. Aguirrezabala Esnal Idazkari Kontuhartzaileak.**

**Asiste y da fe del acto el Secretario-Interventor Jesus M. Aguirrezabala Esnal.**

**Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.**

**Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, el Alcalde declara abierta la sesión pasándose a examinar el primer asunto del Orden del Día.**

**AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA.**

**APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LA SESIONES ANTERIORES.**

Alkateak, onartzeko dauden Akten berri ematen du:

- 2012ko maiatzaren 24ko Ohiko Batzarraren Akta.

El Alcalde informa de las actas que se traen para su aprobación:

- Acta del Pleno ordinario de 24 de mayo de 2012.

Akta bozkatzen da, gehiengo absolutuz onartzen direlarik, Bildu taldekoak diren Gema Etxaniz eta Iñigo Sarasola

Se procede a la votación y se aprueba el acta con el voto en contra de los concejales del grupo BILDU Iñigo Sarasola y Gema Etxaniz.

zinegotzien kontrako botuarekin.

- 2012ko ekainaren 13ko Ez Ohiko Batzarraren Akta.

- Acta del Pleno Extraordinario de 13 de junio de 2012.

Akta bozkatzen da, gehiengo absolutuz onartzen direlarik, Bildu taldekoak diren Gema Etxaniz eta Iñigo Sarasola zinegotzien kontrako botuarekin.

Se procede a la votación y se aprueba el acta con el voto en contra de los concejales del grupo BILDU Iñigo Sarasola y Gema Etxaniz.

- 2012ko uztailaren 26ko Ohiko Batzarraren Akta.

- Acta del Pleno ordinario de 26 de julio de 2012.

Akta bozkatzen da, gehiengo absolutuz onartzen direlarik, Bildu taldekoak diren Gema Etxaniz eta Iñigo Sarasola zinegotzien kontrako botuarekin.

Se procede a la votación y se aprueba el acta con el voto en contra de los concejales del grupo BILDU Iñigo Sarasola y Gema Etxaniz.

**ALKATETZAKO GAIAK**

**TEMAS DE ALCALDIA**

**ALKATETZA-EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 139/2012tik 154/2012-ra bitartean.

Behin behineko idazkari-kontuhartzailearen izendapenaren 143/2012 alkatetza-ebazpenari dagokionez, Iñigo Sarasolak zera adierazi nahi du: izendapen horren erabakia zazpi zinegotzien artean hartu behar zela.

Alkateak, indarrean dagoen araudiaren arabera, Idazkari-kontuhartzailearen

**DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.**

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 139/2012 al 154/2012.

Iñigo Sarasola quiere hacer una aclaración sobre decreto 143/2012 , sobre el nombramiento del Secretario-Interventor accidental. Cree que la decisión debía haberse tomado entre los siete concejales.

El Alcalde le contesta que de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente, el

izendapena alkateari dagokiola eta ez udal bilkuari erantzuten dio.

nombramiento del Secretario – Interventor es una competencia que le está reservada a él y no al Pleno.

3000 €-tik gorako fakturak onartzen dituzten 142 eta 148/2012 dekretuei dagokionez, Iñigo Sarasolak 3.000€-tik gorako fakturak bakarrik ikusteko aukerarekin ez dagoela ados adierazten du. Faktura guztiak ikusi nahi ditu eta lan komisioetan eztabaidatu.

En lo referente a los decretos 142 y 148/2012 de aprobación de facturas superiores a 3.000€, Iñigo Sarasola dice que no están de acuerdo con que se pasen por Pleno sólo las facturas superiores a 3000€. Quiere ver todas las facturas y que se puedan discutir en las comisiones.

Udal kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

Los Corporativos quedan al corriente.

**AZPIEGITURA ETA HIRIGINTZA**

**INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO**

**HIRI ANTOLAMENDUZKO PLAN OROKORRAREN AURRERAPEN DOKUMENTUA: JENDEAURREN JARTZEA.**

**DOCUMENTO DEL AVANCE DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA: EXPOSICIÓN AL PÚBLICO.**

Alkateak dioen bezala, Udal-Arkitekto aholkulariak eta ingurumen-eraginari buruzko azterketa bateratua egin duen EKOS enpresaren arduradunak gaia udal kideei azaldu zieten aurreko batzorde informatzailean.

El alcalde expone que ya explicó el asunto a los corporativos en la pasada comisión informativa por parte del Arquitecto Asesor Municipal y el responsable de la empresa EKOS que ha elaborado el Estudio Conjunto de Impacto Ambiental.

Gaurtik aurrera jendeaurrean jartzeko tramiteak hasiko dira, etxez etxe banatuko den bideo batez eta bilera pare batez eta dokumentua aztertzeko eta alegazioak eta beste alternatiba batzuk aurkezteko bi hilabeteko epea egongo da.

A partir del día de hoy se iniciarán los trámites de información pública, mediante el buzoneo de un video y un par de reuniones y habrá dos meses para analizar el documento y presentar alegaciones y otras alternativas.

Iñigo Sarasolari ez zaio ondo iruditzen informazioa aztertzeko izan duten hain debora gutxi. Alkateak zinegotziei aurreratu die hemendik aurrera herriak aztertu ahal izango duena. Horrez gain, Plan Orokorrari buruzko bileretan parte hartzeko aukera izan dute.

Iñigo Sarasola dice que no le parece bien el poco tiempo que han tenido para examinar la documentación, a lo que el Alcalde responde que a los concejales se les ha adelantado lo que a partir de ahora va a poder analizar la gente. Además han tenido ocasión de participar en las reuniones que se han hecho sobre el Plan General.

**UDALERRIKO KALE-IZENDEGIAREN ALDAKETA: ALEGAZIOEN EBAZPENA ETA, HALA BADAGOKIO, BEHIN BETIKO ONARPENA.**

Alkateak dio 3 alegazio aurkeztu direla, baina ezin dira horietako bi alegazio bezala hartu.

Ondoren, Batzorde informatzailearen txostenaren berri ematen da, honako hau izanik:

Joan den maiatzaren 24an izandako udalbatzan hasiera batean onartutako Udaleko kale-izendegirako proposamena jendaurrean jakitera emateko epea amaituta, 3 alegazio aurkeztu dira; hain zuzen, ondoren aztertzen direnak:

1.- Estibaliz Aguirrezabala Goenaga andreak aurkeztutako alegazioa.- Galarregi kalearen 18 zenbakiko eraikinerako proposatzen den zenbaki-aldaketak nahasmena ekar dezakeela dio.

Alegazioa aintzat hartzea eta eraikin horri egun duen zenbakiarekin eustea (hau da, Galarregi, 18) proposatzen da. Izan ere, hasiera batean onartutako dokumentuan zenbakia oker agertzen zen.

2.- Ainhoa Goiburu andreak aurkeztutako alegazioa.- Pilotalekuaren inguruan dauden lursail urbanizatuak zergatik zenbakitu ez diren galdetzen du.

Goiburu andreari honako hau jakinaraztea proposatzen da: etxe horiei zenbakiak jarri aurretik, eraikin bakoitzaren sarrera non egongo den ezagutu behar dela. Etxeak

**MODIFICACIÓN DEL CALLEJERO DEL MUNICIPIO: RESOLUCIÓN DE ALEGACIONES Y APROBACIÓN DEFINITIVA, SI CORRESPONDE.**

El alcalde expone que se han presentado 3 alegaciones, pero sólo hay una que se puede considerar como tal.

Seguidamente se da cuenta del dictamen de la Comisión Informativa que es del siguiente tenor :

Finalizado el plazo de información pública de la propuesta de modificación del Callejero Municipal, aprobada inicialmente en la sesión plenaria celebrada el 24 de mayo último, se han presentado 3 alegaciones, cuyos contenidos se pasan a analizar.

1.- Alegación presentada por Dª Estibaliz Aguirrezabala Goenaga.- Manifiesta que el cambio de numeración que se plantea para el inmueble nº 18 de la Calle Galarregi puede acarrear confusiones.

Se propone estimar dicha alegación, manteniendo a dicho inmueble con la actual numeración, esto es Galarregi nº 18, y ello por cuando la numeración que se recogía en el documento aprobado inicialmente reflejaba un error.

2.- Alegación formulada por Ainhoa Goiburu.- Se pregunta las razones por las cuales no se han numerado las parcelas urbanizadas que se localizan en el entorno del frontón.

Se propone comunicar a la Sra. Goiburu que la falta de numeración de dichos inmuebles dependerá de la ubicación del acceso que disponga cada uno de los edificios, extremo

oraindik eraiki ez dituztenez, sarreren kokapena ez da ezagutzen. Horregatik, Elizondo kaleko edo Santa Luzia kaleko zenbakien arabera zenbatuko dituzte, sarrerak non dauden kontuan hartuz.
da.

éste que aún no se halla definido al no haberse edificado, de modo que quedarán numerados con los correspondientes a Elizondo kalea ó Santa Luzia kalea, en función de la ubicación del acceso a éstos.

3.- Ormazabal-Berrocal familiak aurkeztutako alegazioa.- Jendaurrean jakinarazitako proposamena berrikustea eskatzen dute, izendapen berriak (Santa Luzia kalea) dokumentazio ofiziala eguneratzeko garaian sorraraziko dizkien eragozpenak argudiatuta; eta Galarregi kalerako erabilitakoaren antzeko tratamendua eskatzen dute.

3.- Alegación formulada por la Familia Ormazabal – Berrocal.- Solicitan la revisión de la propuesta sometida a información pública aduciendo los inconvenientes que la nueva denominación – Santa Luzia kalea – va a ocasionarles en la actualización de la documentación oficial, e interesando un tratamiento similar al empleado en Galarregi Kalea.

Alegazio hau ez onartzea proposatzen da, Santa Luzia kaleko bidegurutzea ezin baita Galarregiko kalekoarekin konparatu, Santa Luziakoa frontoiaren inguruan aurreikusitako eraikuntzeekin jarraipen bat izango duelako, Galarregi kaleko adarretan gertatzen ez dena.

Se propone desestimar la alegación, y ello por cuanto que la bifurcación que se da en Galarregi kalea no es equiparable a Santa Luzia kalea, dado que ésta última tiene su continuidad con los nuevos edificios proyectados en el entorno del frontón, circunstancia ésta que no se da en uno de los ramales de Galarregi kalea.

Alegazioen ebazpenak bozkatzen dira, lehendabiziko biak aho batez ez onartzen direlarik, eta azkenekoa gehiengo absolutuz onartzen delarik, Bildu taldeko bi zinegotzi eta Amaia Cuellarren aurkako botoarekin

Se somete a votación la resolución de las alegaciones, siendo desestimadas las dos primeras por unanimidad y la última por mayoría absoluta, con el voto en contra de los dos concejales de BILDU y de Amaia Cuellar.

Kale-izendegiaren aldaketaren behin betiko onarpena bozkatzen da, gehiengo absolutuz onartzen delarik, Bildu taldeako bi zinegotzien aurkako botoarekin.

Se somete a votación la aprobación definitiva de la modificación del callejero quedando aprobado por mayoría absoluta con el boto en contra de los dos concejales de BILDU.

Iñigo Sarasolak bere botuaren zentzua azaltzen du. Ez dago aldaketa honekin ados, herritarrentzako arazo bat izan zitekeelako eta mantentzearen alde dago.

Iñigo Sarasola explica el sentido de su voto. No está de acuerdo porque el cambio supone confusión para los vecinos y está a favor de mantenerlo como está.

Alkateak honekin lortuko dena justo kontrakoa dela erantzuten dio eta arazoak sahiesteko orain badagoela kale-izendegiaren zenbakituntzarako irizpide bat.

**OSTOLAZA 12 EREMUKO JARDUKETA URBANIZATZAILEAREN PROGRAMA: ALEGAZIOEN EBAZPENA ETA HALA BADAGOKIO, BEHIN BETIKO ONARPENA**

Jon Orue asesoreak, azaltzen du zer den Jarduketa Urbanizatzailaren programa.

Ondoren, Batzorde informatzailearen txostenaren berri ematen da, honako hau izanik:

Agiria hasiera batez onartzeko uztailaren 26an izandako bilkuran hartu zen erabakiaren ondoriozko izapideak bete ondoren, Arantxa Gurrutxaga Zeberio andreak egindako alegazio-idazki bakarra aurkeztu da jendaurreko informazioko eta interesatuak entzuteko epean zehar.

Udal arkitekto aholkulariak alegazioaren inguruko txostena egin eta ez onartzea proposatu du

Adierazitakoaren arabera, honako hau erabaki da:
Lehena.- Udaleko arkitekto aholkulariak osatutako txostenean bildutako datuetan oinarrituz, Arantxa Gurrutxaga Zeberio andreak aurkeztutako alegazioa atzera botatzea.
Bigarrena.- Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako “ Ostolaza “ 12. Eremuko

El Alcade le responde que se hace esto para evitar problemas ya que antes no había criterio para la numeración de las calles y ahora sí.

**PROGRAMA DE ACTUACIÓN URBANIZADORA DEL SECTOR 12 OSTOLAZA: RESOLUCIÓN DE ALEGACIONES Y APROBACIÓN DEFINITIVA SI CORRESPONDE.**

El asesor jurídico Jon Orue explica en qué consiste el Programa de Actuación Urbanizadora.

Seguidamente se da cuenta del dictamen de la Comisión Informativa que es del siguiente tenor :

Habiéndose cumplimentado los trámites derivados del acuerdo de aprobación inicial del documento, que recayó en sesión plenaria celebrada el 26 de julio último, durante el plazo de información pública y audiencia a los interesados se ha presentado un único escrito de alegaciones formulado por Dª Arantxa Gurrutxaga Zeberio.

El Arquitecto Asesor Municipal ha emitido informe en relación a dicha alegación, en la que propone su desestimación.

En consecuencia con lo expuesto, se acuerda :
Primero.- Desestimar la alegación presentada por Dª Arantxa Gurrutxaga Zeberio en base a la fundamentación recogida en el informe elaborado por el Arquitecto Asesor Municipal.
Segundo.- Aprobar definitivamente el Programa de Actuación Urbanizadora del

Hirigintza Jarduerako Programa behin betiko onartzea.
Hirugarrena.- Hartutako erabakiarekin bat datozen gainerako jarduerak betetzea.

Área 12 " Ostolaza " de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal.
Tercero.- Cumplimentar el resto de actuaciones inherentes al acuerdo adoptado.

Jarduketa Urbanizatzailaren programaren behin betiko onarpena bozkatzen da gehiengo absolutuz onartzen delarik, Bildu taldeko bi zinegotzien aurkako botoarekin.

Se somete a consideración la propuesta quedando aprobado por mayoría absoluta con los votos en contra de los dos concejales de BILDU

Iñigo Sarasolaren ustez aleagazioan ematen diren argudioal ulegarriak direla eta hasiera hasieratik etxebizitza zutenen jabe guztiekim ez dela maila berean jokatu. Udaleko teknikoei dagokiela irtenbidea ahalik eta duinena ematea.

Iñigo Sarasola expone que considera que las razones de la alegación son comprensibles y que no se ha actuado de la misma manera con todos los propietarios de las viviendas. Deja en manos de los técnicos municipales una salida lo más digna posible a este problema.

**OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK**

**HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES**

**3.000 EUROTIK GORAKO FAKTUREN ONARPENA.**

**APROBACIÓN DE LAS FACTURAS SUPERIORES A 3.000 EUROS.**

Joan zen batzorde informatzailean faktura bakoitzaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Se dio cuenta de cada factura a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Fakturak bozkatzen dira gehiengo absolutuz onargtzen direlarik, Bildu taldeko zinegotziak diren Gema Etxaniz eta Iñigo aola zinegotzien aurkako botoarekin.

Se procede a votar las facturas que son aprobadas por mayoría absoluta con el voto en contra de los concejales del grupo Bildu Gema Etxaniz e Iñigo Sarasola.

Iñigo Sarasolak faktura guztiak ikusi nahi dituela adierazten du.

Iñigo Sarasola reitera que quiere ver todas las facturas.

**DIRUZAINTZAREN EGOERA. INFORMAZIOA.**

**SITUACIÓN DE TESORERÍA. INFORMACIÓN.**

Udal - kideei 2012ko irailaren 7ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 9 de septiembre de 2012.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira, 1.184.107,99 euro ditu.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de 1.184.107,99 euros.

Udal kideak jakinaren berri gelditzen dira.

Los Corporativos quedan al corriente.

**2011. URTEKO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA**

**APROBACION DEFINITIVA DE LA CUENTA GENERAL 2011**

Joan zen batzorde informatzaile berezian gaiaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Se dio cuenta del tema a los corporativos en la pasada comisión especial informativa.

Jose Bernardok aurreko Bilkura batean Iñigo Sarasolak “otras construcciones” kontuaren berri jakin nahi zuela eta ea erantzun dioten.

Jose Bernardo Aldasoro recuerda que Iñigo Sarasola preguntó sobre el contenido de la cuenta “otras construcciones” y quiere saber si ha habido respuesta.

Idazkariak segituan emango zaiola inbentarioan azaltzen baita adierazten du.

El Secretario le informa que se le facilitará inmediatamente ya que está en el inventario.

Gaia bozkatzen da gehiengo absolutuz onartzen delarik, Bildu taldeko aurkako botoarekin.

Se somete el asunto a votación, quedando aprobado por mayoría absoluta con el voto en contra del grupo Bildu.

**3-2012 KREDITU ALDAKETA KREDITU GAIKUNTZA MODALITATEAN: HASIERAKO ONARPENA.**

**MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS 3-2012 EN MODALIDAD DE HABILITACIÓN DE CRÉDITOS: APROBACIÓN INICIAL.**

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren

Se dio cuenta del tema a los corporativos en

berri eman zitzaien udal-kideei.

Gaia bozkatzen da gehiengo absolutuz onartzen delarik, Bildu taldeko bi zinegotzien abstenzioarekin.

Dokumentazio guztia dagokion espedientean dago.

Honenbestez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuari buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 eta 34.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, aipatu espedientea jendaurrean jartzen da,Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki baten argitalpenaren bidez, interesdunek 15 laneguneko epea izango dutelarik erreklamazio, eragozpen edo oharrak aurkeztu ahal izateko.

**URGENTZIKO GAIAK**

**ETXEBIZITZA TASATU BEZALA 1.7 EREMUKO ETXEBIZITZEN KALIFIKAZIOA**

Gai hau gai-zerrendan ez dagoenez, lehendabizi, gaia premiazko ote den bozkatuko dela adierazi du Alkateak.

Urgentzia bozkatzen da gehiengo absolutuz onartzen delarik, Bildu taldeko bi zinegotzien abstenzioa eta Jose Bernardo Aldasororen kontrako botoarekin.

Jarraian, honako proposamen hau hartuko da kontuan:
CONSTRUCCIONES TRATI SL enpresaren izenean eta hau ordezkatuz, Eduardo Arruti Lopetegui jaunak egindako eskaeraren berri eman da. Udal

la pasada comisión informativa.

Se somete el asunto a votación, quedando aprobado por mayoría absoluta con la abstención de los dos concejales de Bildu.

Toda la documentación obra en el expediente correspondiente.

En cumplimiento de lo dispuesto en el art. 34.3 y 15.1 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las entidades locales, se somete a información pública mediante inserción de anuncio en el Boletín oficial de Gipuzkoa, durante el plazo de 15 días hábiles para que los interesados puedan presentar reclamaciones, reparos y observaciones.

**TEMAS URGENTES**

**CALIFICACIÓN DE LAS VIVIENDAS DEL 1.7 COMO VIVIENDAS TASADAS**

Dado que este asunto no figura incluido en el orden del día, el Alcalde expone que se votará primero si se considera urgente o no el tema

Se aprueba la urgencia con la mayoría absoluta de los votos, con la abstención de los dos concejales de BILDU y el voto en contra de Jose Bernardo Aldasoro.

Seguidamente, se somete a la consideración la siguiente propuesta :
Se da cuenta de la solicitud formulada por D. Eduardo Arruti Lopetegui, actuando en nombre y representación de la mercantil CONSTRUCCIONES TRATI S.L., que

Plangintzako Arau Subsidiarioetako 1. sektorean –Herrigune– U.A.U 1.7.ko lursailetako batean garatuko duen sustapenari dagokion Udalaren etxebizitza tasatuen kalifikazioa eskatu du. Zehatz-mehatz, kasurako deitutako eta 2012-07-26an egindako bileran udalak hartutako erabakiaren bidez ebatzi zen lehiaketan udal-erakunde honek besterendu zion lursailean.

Udal honek onartutako "*Olaberriako udalaren etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantzaren*" 10. artikuluaren arabera, kalifikazioa Udalbatzari ematea dagokio. Bertan hartutako erabakian, etxebizitza bakoitza eta eranskinak saltzeko gehieneko prezioa ezarriko da. Aurkeztutako eskaeraren kasuan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 6. idatz-zatiko zortzigarren xedapen gehigarrian agindutakoaren arabera, erregimen bereziko etxebizitza tasatuak dira.

Adierazitakoaren arabera, honako hau erabaki da:

Lehena.- Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako 1. sektorean –Herrigune– U.A.U 1.7.ko lursailetako batean CONSTRUCCIONES TRATI SLk garatuko nahi duen bizitegi-sustapena erregimen bereziko etxebizitza tasatu gisa kalifikatzea.

Bigarrena.-Lehiaketarako aurkeztutako eskaintzaren arabera, elementu bakoitzaren salmenta-prezioak –BEZ gabe–, BOEren prezioari 1,48 modulua aplikatu ondoren aterako direnak izango dira:

- Etxabea A: 164.642,93 €.
- Etxabea B: 164.642,93 €.

interesa la calificación de vivienda Tasadas Municipales de la promoción que va a desarrollar en una de las parcelas de la U.A.U. 1.7., en el Sector 1 – Herrigune de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal, en concreto en la parcela que le fue enajenada por esta Entidad Municipal en el concurso convocado al efecto y resuelto mediante acuerdo plenario adoptado en sesión celebrada el 26-07-2012.

El artº 10 de la *" Ordenanza reguladora de las viviendas tasadas municipales de Olaberria "* aprobada por este Ayuntamiento, dispone que la calificación corresponde otorgarla al Pleno Municipal, en cuyo acuerdo se fijará el precio máximo de venta de cada vivienda y de los anexos. En el caso de la solicitud presentada, y con arreglo a lo dispuesto en la Disposición Adicional Octava, apartado 6, de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, se trata de viviendas tasadas de régimen especial.

En consecuencia con lo expuesto, se acuerda :

Primero.- Otorgar la calificación de vivienda tasada de régimen especial a la promoción residencial que CONSTRUCCIONES TRATI S.L., interesa desarrollar en una de las parcelas de la U.A.U. 1.7., en el Sector 1 – Herrigune de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal.

Segundo.- Con arreglo a la oferta presentada a la licitación, los precios de venta de los distintos elementos – sin IVA - , serán los que resulten de aplicar el módulo 1,48 al precio de la VPO, resultando los siguientes :

- Bajo A : 164.642,93 €.
- Bajo B : 164.642,93 €.

- 1.a – A: 157.224,30 €.
- 1.a – B: 157.224,30 €.
- 2.a – A: 157.224,30 €.
- 2.a – B: 157.224,30 €.
- 1. garajea: 13.941,54 €
- 2. garajea: 13.915,19 €
- 3. garajea: 13.915,19 €
- 4. garajea: 13.941,54 €
- 5. garajea: 17.914,30 €
- 6. garajea: 17.914,30 €
-

Hirugarrena.- Aurretik aipaturiko "Olaberriako udalaren etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantzaren" 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, lehen erabilerako baimena eman aurretik, behin betiko kalifikazioa eskuratu beharko da, eta etxebizitzak eta gainerako elementuak behin-behineko kalifikazioaren zehaztapenen arabera gauzatu dituztela egiaztatu beharko dute.

Proposamena bozkatzen da gehiengo absolutuz onartzen delarik, Bildu taldeko bi zinegotzi eta Jose Bernardo Aldasororen kontrako botoarekin.

**GALDERA ETA ERREGUAK**

**Iñigo Sarasola jaunak(BILDU) egindako galdera eta erreguak**

- Zarata mapa

Aurreko osoko bilkuran eskatu zen zarata mapa eta ordaindik ez dute jaso.

Alkate jaunak AURRERAPEN DOKUMENTUAREKIN emandako Cdan sartuta dagoela erantzuten dio.

- 1º – A : 157.224,30 €.
- 1º – B : 157.224,30 €.
- 2º – A : 157.224,30 €.
- 2º – B : 157.224,30 €.
- Garaje 1 : 13.941,54 €
- Garaje 2 : 13.915,19 €
- Garaje 3 : 13.915,19 €
- Garaje 4 : 13.941,54 €
- Garaje 5 : 17.914,30 €
- Garaje 6 : 17.914,30 €
-

Tercero.- Con arreglo a lo dispuesto en el precitado artº 10 de la *"Ordenanza reguladora de las viviendas tasadas municipales de Olaberria ",* para la concesión de la licencia de primera utilización deberá obtenerse previamente la calificación definitiva, debiendo acreditarse que las viviendas y demás elementos se han ejecutado con arreglo a las determinaciones de la calificación provisional.

Se aprueba la propuesta con la mayoría absoluta de los votos y los votos en contra de Jose Bernardo Aldasoro y los dos concejales de BILDU.

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

**Ruegos y preguntas formuladas por Iñigo Sarasola (BILDU)**

- Mapa de ruido

En el Pleno anterior se solicitó el mapa de ruido y dice que no se les ha entregado.

El Sr. Alcalde le responde que en el CD que se les ha entregado con el AVANCE va incluido.

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

- Zabor Plana

Sasietako ordezkaritza duen aldetik, ze plan dagoen zabor bilketaren inguruan udalerriari begira, galdetzen du.

**Jose Bernardo Aldasoro jaunak(OHE) egindako galdera eta erreguak**

Errekaldeko emergentziko etxebizitzari buruz galdetzen du eta alokatu dela erantzuten zaio.

**Bertaratutako jendeak aurkeztutako galdera eta erreguak**

Arantxa Gurrutxaga andreak honako adierazpenak egiten ditu:

Ez dago bat ere ez ados Ostolaza deritzon 12. eremuan Jarduketa Urbanizatzaile Programaren onarpenareikin eta hartu behar diren neurri guztiak hartuko direla.

Alkateak alde guztiak biltzen saiatuko dela jarrerak adostu ahal izateko. .

**Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkaria naizenez, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.**

- Plan de residuos

Pregunta que plan hay en torno a la gestión de residuos para el municipio como parte de Sasieta.

**Ruegos y preguntas formuladas por Jose Bernardo Aldasoro (OHE)**

Pregunta sobre la situación del piso de emergencia de Errekalde y se le responde que se ha alquilado

**Ruegos y preguntas formuladas por el público**

La Sra. Arantxa Gurrutxaga realiza las siguentes declaraciones:

Dice que no está de acuerdo con la aprobación del Programa de Actuación Urbanizador de Ostolaza y que tomarán las medidas que tengan que adoptar.

El Alcalde le dice que intentará reunir a todas las partes afectadas en orden a consensuar posturas.

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las diecinueve horas y quince minutos, y yo, el Secretario de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**IDAZKARIA / EL SECRETARIO**